

ERAZUA José Paulo Urbiola - co Yauna

Donatian 1827 garren artean Urvillearen Lan eguina.

Nere jabe ta adisquide mania: atrequin andibatē
ira curri der Zeure Carta gozoa, conetan icution dezan arguivequi Zure Eain
piñetan pill pil diZaquiena, anciña anciñaco euscaldan preta chit gogean
garvi etatic de orauizan. Adol pibi hem indarseta. Zorionco litza que gure
Euzkianco de orauizan. Adol pibi hem indarseta. Zorionco litza que gure

Zuria

gure erara

Egape Dantza Taldearen eta Anabasen eskutik

Dantza ikuskizuna

"ZURIA, gure erara"

Ikuskizunaren nondik norakoa.

Joan Ignazio Iztueta Etxeberria (*Zuria*) zaldibiarra 18.-19. gizaldietako egile garrantzitsua da, ez bakarrik Gipuzkoan, Euskal Herri osoan baizik. "Egilea" diogu, eta ez, esate baterako, "folklore-biltzailea", ospea, batez ere, 1824ko dantza-bildumagatik datorkion arren, beste esparru batzuetan ere lan esanguratsuak burutu zituelako. Hain zuzen, folklore-biltzailea ez ezik, poeta, pedagogoa, historialaria eta euskalaria izan zen. Nolanahi ere den, nabarmendu beharra dago lan nagusiak euskaraz idatzi zituela, eta ez edozein moduzko euskaraz gainera, hizkuntza landua zerabilelako. Ezaugarri horrek badu garrantzia, haren lanei balio erantsia emateaz landara, orduko euskalgintzan salbuespena delako, hau da, elizgizona ez den idazle euskaldun bakarretakoa delako. Kultur arloan ez ezen, politika eremuan ere ekarpen garrantzitsua egin zuen, foruak gordetzeko euskarririk sendoena euskaraz mintzatzea eta idaztea dela adierazten duenean adibidez.

Sinopsia.

Juan Ignazio Iztueta "Zuria" Zaldibian, artzain-herri batean, jaio zen 1767n eta han bertan hil 1845n. Aldaketa garaian bizi izan zen; ilustrazioa, frantsesadak eta lehen karlistada bertatik bertara ikusi zituen. Bizitza luze bezain betea izan zuen, ez baitzen geldi egoteko horietakoa: dantzari fina, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen, hainbat lan idatzi zituen euskaraz... Ildo horretan, 1824n egindako dantza-bildumarekin gertaturikoa paradoxa da: eskuliburu zurruntzat erabili da urte luzez, egileak, beste ororen gaineratik, gauzak bere erara egitea, aske izatea, maite zuenean, kosta ahala kosta. Egape dantza-taldeak, Anabasek eta Marizuloko zenbait kidek, Urnietako udalaren eta Kutxa Fundazioaren babesarekin, Zuriaren izatea eta haren garaiko Gipuzkoa ezagut dezan erraztu nahi diogu ikusleari (izan dantzazale edo ez), zaldibiarrak egingo zukeen bezala, gure erara.

Fitxa artistiko eta teknikoa

Ideia: **Luis Mari Zaldua**.

Gidoia: **Mikel Agirregomezkorta, Luis Mari Zaldua**.

Eszena zuzendaritza: **Mikel Agirregomezkorta**.

Koreografiak eta Dantzen zuzendaritza : **Edu Muruamendaraz**.

Musika zuzendaritza: **Antton Jauregi**.

Argi Diseinua eta Soinua: **Pablo Lusarreta**.

Jantziak: **Enkarni Cuesta**.

Koordinazioa: **Jaione Jauregi**.

Argazkiak: **Kali Gómez**.

Diseinu Grafikoa: **Maribel Tardío**.

Atrezzoak: **Isidro Salinas**.

Antzezlea: **Jon Unanue**.

Dantzari txikiak: **Aitzol Otegi, Gariñe Serrano, Arixen Unanue Gartzea Zaldua**.

Dantzariak: **Edu Muruamendaraz, Ane Anza, Ane Etxeberria, Janire Juanikorena, Karmele Lekuona, Uxue Manterola, Eider Manterola, Olatz Oribe, Nahikari Sanchez, Olatz Sarasola, Garazi Usabiaga**.

Musikariak:

Pedro Artetxe: Perkusioa

Julian Cobzaru: Eskusoinua

Antton Jauregi: Txistua, Txirula

Monika Redondo: Bibolina

Eneko Salaberria: Baxua eta Pianoa

Xabier Ubillos: Kitarra

Abeslaria: **Aitor Unanue**

ekoizpena: **Egape dantza elkarteak, Anabas musika taldearekin elkarlanean**.

Laguntzaileak: **Urnietako Udala eta Kutxa Fundazioa**.

EMANALDIAK. "Zuria gure erara"

Urtarrilak 16	Sarobe Arte Eszeniko Gunea	Urnieta
Urtarrilak 17	Sarobe Arte Eszeniko Gunea	Urnieta
Urtarrilak 18	Sarobe Arte Eszeniko Gunea	Urnieta
Maiatzak 22	Bastero Kulturgunea	Andoain
Abenduak 13	Antzoki Zaharra	Donostia



Lurria,

gure erara

Egape Dantza Taldearen eta Anabasen eskutik

Dantza ikuskizuna

Urtarrilak 17,18 Enero

19:00etan

Sarobe - Urnieta

sarrerak salgai saroben



URNIETA

Nuevo espectáculo de danza en Sarobe

Los grupos Egape y Anabas quieren acercar la vida y obra de Juan Ignacio Iztueta 'Zuria' con un completo trabajo artístico

■ MARÍA CORTÉS

✉ durnieta@telefonica.net

URNIETA. Egape Dantza Taldea y Anabas Musika Taldea presentan un nuevo espectáculo de danza que se estrenará este próximo fin de semana en Sarobe. Bajo el título 'Zuria, gure erara' se ofrecerán dos funciones, el sábado y el domingo a las siete de la tarde.

El espectáculo cuenta con la colaboración del Ayuntamiento y las entradas para poder acudir a verlo ya están a la venta en el Centro de Artes Escénicas.

Vida y obra de Iztueta

'Zuria, gure erara' es un espectáculo con coreografías bajo la dirección de Edu Muruamendiaraz para las dantzaris de Egape Dantza Taldea, con música en directo de Anabas, en el que se hace un recorrido por la vida y obra de Iztueta guiada por un actor. Asimismo, la participación de algunos integrantes del grupo Marizulo que han impulsado los últimos espectáculos en Urnieta, «ha sido fundamental en este nuevo proyecto», aseguran los organizadores que detallan que «se quiere acercar al espectador la persona de Iztueta y la Gipuzkoa de la época (sea aficionado a la danza o no) como lo haría el propio Iztueta, a nuestra manera».

Para los que no lo sepan, Juan Ignacio Iztueta 'Zuria' nació en Zaldibia en 1767 y murió en la misma localidad en 1845. Vivió en una época convulsa con la ilustración, las francesadas o la primera carlistada. Tuvo una vida tan larga como plena o azarosa, destacado bailarín, se casó tres veces, estuvo en la cárcel, y escribió varias publicaciones en euskera. En este contexto, en 1824 edita el libro recopilatorio de las dan-



Sarobe acogerá el espectáculo de danza 'Zuria, gure erara' en el que han participado Egape Dantza Taldea y Anabas Musika Taldea.



Un momento de los ensayos de la obra que se escenificará el próximo fin de semana. ■ JOSE MARI LÓPEZ

zas guipuzcoanas y resulta paradójico el rigor con que se consideró su obra, y la manera en la que el autor vivió su vida, por encima de todo haciendo las cosas a su manera, siendo libre, amando apasionadamente, costara lo que costara.

La idea del espectáculo 'Zuria, gure erara' fue de Luis Mari Zaldúa con guión de Mikel Agirregomezkorta, que también es el director de escena. La labor coreográfica es de Edu Muruamendiaraz y la dirección musical de Antton Jauregi. A cargo de

la iluminación y el sonido, Pablo Lussarreta, y del vestuario de Enkarni Cuesta. La coordinación corre a cargo de Jaione Jauregi, la fotografía y video es de Kali Gómez, el diseño gráfico de Maribel Tardío y el atrezzo de Isidro Salinas. Y el trabajo inter-

pretativo del espectáculo será de Jon Unanue.

Dantzaris y músicos

Egape Dantza Taldea aporta su talento con la participación de los dantzaris de la agrupación urnietarra, entre ellos, los txikis que se subirán al escenario de Sarobe serán Aitzol Otegi, Gariñe Serrano, Arixen Unaue y Gartzzea Zaldúa, mientras que entre los mayores estarán Edu Muruamendiaraz, Intza Cabrera, Irati Gokoetxea, Janire Juanikorena, Karmele Lekuona, Uxue Manterola, Eider Manterola, Irantzu Oiarzabal, Nahikari Sánchez y Garazi Usabiaga.

Y la música la completarán el percusionista Pedro Artetxe, el acordeonista Julián Cobzaru, con el txistu y la flauta Antton Jauregi, la violinista Monika Redondo y Helena Soguska, al bajo y piano con Eneko Salaberria y el guitarrista Xabier Ubillos. La voz la pondrá en este espectáculo Aitor Unanue.

Iztueta eta Sinatraren arteko lotura

XIX. mendeko folkloristaren inguruko dantza-ikuskizuna prestatu dute Urnietan. Era librean, **Iztuetak ere oso libre jokatu ohi zuelako**

Segurarrak 'Ez dira aspaldiko kontuak' herri-antzerkia eramango dute bihar Atauna, eta otsailean Idiazabala. **Frankismo garaiko hezkuntzari buruzkoa da**



LAUBIDE

FELIX
IBARGUTXI

Urnietako Sarobe aretoan, bihar, dantza- eta musika-ikuskizun bat estreinatuko da, **Zuria gure erara** deritzana. Juan Ignazio Iztueta 'Zuria'-ri buruzko lana da, XIX. mende hasierako idazle eta folklorista hartaz hitz egiten da, baina gaurko ikuspegitik eta modu berri batez. Horregatik izenburua.

Luis Mari Zaldúa dugu ideiarene aita. Bi helbururekin jarri omen zuen abian proiektua: «Batetik, barrura begira, **Egape** taldeko dantzari eskarmentudun horiek pizgarri bat izan zezaten; bestetik, erakusteko Iztuetaren lana eta orduko Gipuzkoa».

Luis Mari Zaldúa uste du gauza batzuk gaizki egin direla: «Iztuetak Gipuzkoako dantzen kanona edo eredu izango zen dantza-bilketa bat egin zuen. Bilduma hori oso modu zurrunean erabiltzen da, gauza ukiezin bat bezala. Iztuetaren bizitzari begiratuz gero, ordea, ikusten da bera ez zela inondik inora pertsona zurrin bat; guztiz libertarioa eta gauzak bere erara egitea gustatzen zitzaiona baitzen. Paradoxa bat ikusten dugu argi eta garbi, eta hori da obraren abiapuntua».

«Iztuetak egingo lukeen bezala, guztiz libre» jokatu omen dute. Eta bukaera aldera Frank Sinatraren 'My way' entzuten da, erabakimenaren aldeko aldarri ezaguna. Edu Muruamendiarek diseinatu ditu koreografiak. Urnietako Sarobe aretoan aspalditik lanean ari den koreografo honek puristen kritika ugari entzun behar izan zuen garai batean. Purista haiek, nola ez, bibliatzen zeukaten Iztuetaren liburua, 1824ko 'Gipuzkoako dantza go-goangarrien kondaira edo historia' delakoa. Muruamendiak, gaur egun Urnietan, 245 lagunekin ari da dantza-lanean. Markako herria da, alde horretatik.

Iztueta bera hizketan agertzen da tarteak. Lan hori, berriz, Jon Unanueren esku utzi dute, Manuel Larremendi Bazkunako aurpegi publikoena bera. Hor ez dute inongo egokitzapenik edo aldaketarik egin, Iztuetak idatzi bezalaxe entzuten dira pasarte horiek.

«Iztueta sekulako pertso-



Segurarrak. 'Ez dira aspaldiko kontuak' antzezlanean 32 lagun aritzen dira guztira.



Urnietarrak. Egapeko dantzariak 'Zuria gure erara'-n.

naia izan zen, baina oraindik ere baioratu gabea -dio Zalduek-. 'Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia' oso-oso interesgarria da eta horko pasarte batzuk ekarri ditugu ikuskizunera. Adibidez, Iztuetak izan zuen intuizio hau: lotura dagoela Gipuzkoako dantzen pausoen eta bertsolarien metriken artean. Norbaitek aztertu beharko luke hori, ezta?».

Ikuskizuneko beste pasarte batean, Iztuetak **Ataungo Amilleta** baserriko mutilari buruz idatzitakoak irakurtzen ditu Jon Unanuek. Hemezortzi urte bete gabeko mutil hura gai zen zezanak -idiskoak, zehatzago esanda- adarretatik heldu eta errendituzeko. Apustua antolatuz zuten Amezketan, eta mutila garale irten.

Oso pertsonaia bitxia izan zen 'Zuria': dantzari fina, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen -bigarren emaztea, Kontxesi, preso zegoela ezagutu zuen-, hainbat lan idatzi zuen euskaraz... Zalduek uste du aitzindaria izan zela nazioetasuna eta

hizkuntza lotzeko garaian: «Idatzi zuen foruak oso onuragarriak zirela euskal herritarrentzat, foruen sustailetan euskara zegoela, eta euskarari eutsi beharra zegoela etorkizuneko foruak edukitzea nahi baldin bazen».

Segurarrak, bihar Ataunen

Segurarrak batzuek 'Ez dira aspaldiko kontuak' herri-antzezlan muntatu dute, frankismo hezkuntza-eredua eta ikastolen sorrerako giroa erakusten duena. Estreinaldia Seguran bertan izan zen, abenduaren 14an, arrakasta handiz, 800 lagun inguratu baitziren. Bihar, larunbata, Ataunen ikusi ahal izango da, eta otsailearen 21ean Idiazabalen. Goierriko beste herri batzuetatik ari zaizkie deika.

Ideja **Lourdes Imazena** izan zen. «2006an beste antzerki-lan egin genuen, Seguraren 700. urteurrena zela-eta, hura Juan Agirre Sorondoren gidoi batean oinarrituta. Ondo atera zen, baina pentsatu genuen la-

gun batzuk behar bada ez zirela kontatzen zenaz asko jabetuko, oso aspaldiko gertaerak azaltzen baitziren. Halaxe, erabaki genuen kontu berriago batzuk aipatuz beste zerbait egin behar genuela, eta beste lan hau atera da», adierazi dit Imazek. Herri-antzerki bat denez, protagonistak herriarrak dira. Parte-hartzaileak 32 dira guztira, eta gehienak Segurakoak. Hala ere, eszena batean, Goierrri bailaran lehenengo ikastolen sorrera bultzatuz koordinazio-bileretan herrien ordezkari gisa parte hartu zuten pertsona haiekiko batzuk berberak dira protagonista. Orduan guraso gazteak ziren, edota oraindik ezkondu gabekoak, baina kezka hori bizi zutenak. Hona hemen zerrenda: **Joxe Bikuña** (Ataun), **Antonio Irastorza** (Lazkao), **Jose Joakin Lasa** (Beasain), **Julian Urteaga** (Idiazabal), **Gregorio Elortza** (Segura) eta **Jose Ramon Agirre** (Zegama). Eta gaineratu behar da **Ihazintzo Setienena** izena, garai hartan Lazkaon ari zen apaiza. Gaixotasun baten ondorioz hitz egiteko gaitasuna galdua duenez, beste lagun batek egiten du harena.

«Nolatan egiazko protagonista hauek? Alde batek, garai hartan egin zuten lanagatik esker ona azaltzeagatik; eta, bestetik, egoerari errealismo-kutsu handiagoa emateagatik», dio Imazek.

Karlos Gimenezen lana azpimarratzekoa da. Imanol, Lete eta beste zenbaiten aldamenean pianoa jo duen musikari ordiziar honek doinu eder bat konposatu baitu antzezlanerako. Hain zuzen ere, musika hori da antzerkiaren eszena desberdinen artean lotura egiten duena. fibargutxi@diariovasco.com

“Zuria, gure erara” ikuskizuna Saroben, urtarrilaren 16tik 18ra

Egape dantza taldearen ikuskizun berriaren estreinaldia, Anabasa musika taldearekin eta Jon Unanue aktorearekin.

Dantza ikuskizuna izango da, musika zuzenean duena eta hori indartzeko, aktorearen ekarpenak ere edukiko dituena. Horixe da idelaren sustatzaileek Aiurri aurreratu diotena.

Orain dela bederatzirentzako dinamika abiatu zuten Urnietan eta hiru fruitu eman zituen: *Marizulo*, *Urnietan 59* eta *1956*. Hiru emanaldi horien oinarri garrantzitsuen dantza zen: Egape dantza taldeak eta Edu Murumendiarek egindako dantzak, hain justu. Hirugarrena amaituta koan, Egapeko dantzariak emanaldi bat prestatzen laguntzeko eskatu zieten eta hortik sortu da ikuskizun berria. Dena den, ez da antzerki taldearen jarraipena izango. Argi utzi nahi dute, aipatu hiru emanaldietan aritutako kideak berriro arituko diren arren, ez dela laugarren emanaldia izango:



Eguberrietan burubelarrir aritu dira ikuskizuna prestatzen.

dantza mundutik abiatu den dinamika berria delako. Urnietan hiru saio egingo dituzte urtarrilaren 16tik 18ra, bata etxekoei zuzendua eta beste biak herritar guztiei irekita. Dantza ikuskizuna izan arren, dantzaren zale amorratuak ez direnentzat ere entrenigarria

izango da, ikuskizuna osatzen duten elementu asko egongo direlako. Estreinaldia Saroben izango da, baina aurrerantzean eskualdean saio gehiago egitea gustatuko litzaieke.

Eguberrietan entsegu ugari egin dituzte, saioa borobiltzeko. [URNIETA, 3. ORRIALDEA]

EMANALDIAK SAROBEN

Urtarrilak 16, ostirala. 20:00. Familia eta gonbidatuentzat.

Urtarrilak 17, larunbata. 19:00. 4 euro.

Urtarrilak 18, igandea. 19:00. 4 euro.

Sarrerak urtarrilaren 12tik aurrera salgai jarriko dituzte, Saroben.

URTARRILAREN 16AN, 17AN ETA 18AN IKUSKIZUNAREN ESTRENALDIA URNIETAN

Dantza, musika eta antzerki ikuskizuna Saroben

Ordubete inguruko saio honetan ez da aspertzeko betarik izango; antzerkia eta musika zuzenean izateaz gain, Gipuzkoako dantzak XXI. gizaldian girotuta taularatuko dituztelako.

Egape dantza taldeko neskek erronka berri baten aurrean daude, antzerkia, musika eta dantza nahastuko dituen ikuskizun berria prestatzen ari diren honetan.

Marizuloko kide eta ikuskizunaren ideia izan duen **Luis Mari Zalduak** dioenez, dantzariak erronka berriak behar dituzte, dantzarako duten mailari eutsi eta aurrera egiteko: "Dantzariak behar zuten erronka bat eta emanaldi honekin horretan ere saiatuko gara. Aitzakia horrekin, gainera, gu ere elkartu egiten gara", azaldu du. "Dantza munduan Edu Murumendiaren oso pertsona berri zaileza izan da", gaineratu du Zalduak. "Gaur egun arruntak iruditzen zaizkigun hainbat gauza, Gipuzkoako dantza tradizionalako pauso eta mugimenduetan oinarritutako aldaketa modernoak dira. Honela, dantza tradizionala musika berriak eta koreografia berriak txertatzen aitzindari izan da Edu". Dantzen modernizazioan aurrera egiten lagundu eta, beste behin, bere koreografiak erakutsiko dituzte Saroben.



Dantzariak: Edu Murumendiaraz, Iratxe Cabrera, Iratxe Goikoetxea, Iratxe Ibarbe, Janire Juanikorena, Karmele Lekuona, Uxue Manterola, Eider Manterola, Nahikari Sanchez, Garaz Usabiega. **Dantzari txikiak:** Aitzol Otegi, Garihe Serrano, Artxen Unanue, Gartzosa Zaldua.

IZTUETAREN BIZITZA OINARRI
Iztuetak Gipuzkoako dantzen kanona edo eredu izango zen dantza bilketa bat egin zuen. Bilduma hori oso modu zurrunean ibiltzen omen da, gauza

ukiezin bat bezala. "Iztuetaren bizitzari begiratuz gero, ordea, ikusten da bera ez zela inondik inora pertsona zurruntzat; guztiz libertarioa eta gauzak bere erara egitea gustatzen

zitzaiola baitzen. Alderaketa horretan paradoxa bat ikusten dugu argi eta garbi, eta hori da obraren abiapuntua", dio Zalduak. Iztuetaren hitzetan oinarritutako emanaldia izango da,

Jon Unanue aktoreak esaten duena hitzez hitz, bere hitzak baitira. Hala ere, Iztuetaren "Irakurketa libre bat" egin dute, beraien erara egina. Gainera, ikuskizun osoa biltzen duen eta gauzak bakoitzak bere moduan egin behar dituela dioen kantu bat ere badago emanaldian. "Guk ideia hori sostengatzen dugu. Egin ditzaun gauzak, baina egin ditzaun geure erara. Ez gaituzten arrialdean doan beste ardi bat gehiago izan. Horregatik, berak egingo lukeen bezala, ikuskizuna gure erara osatu dugu".

Iztuetaren bizitza oso bete izan zen eta horixe islatu nahi dute: "Dantzari oso fina zen, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen urte dezentez, politikoki pertsona modernoa zen, idazlea ere bazen eta euskaraz idazten zuen...". Oso bizitza oparua eta interesgarria izan zuen Iztuetak, baina bere bizitza eta izaera ezagutarazteaz gain, garai hartako Gipuzkoako ere islatzen da emanaldian: "Ilustrazioaren garaia, Karlismada, eta Frantziako iraultzak dakarren berrikuntza erakusten dira obran. Iztuetaren bizitza testuinguru horretan kokatzen delako".

IZTUETA



Juan Ignazio Iztueta Etxeberria "Zuria" Zaldibiko idazlea eta koreografoa 1767ko azaroaren 29an jaio zen, eta 1845eko abuztuaren 18an hil, 78 urte zituela. Beste lanbide askaren artean zengak-biltzaile eta gartzeleko zuzendari izan zen. Euskal dantzak gaitzorian zeuden garaian berreskuratu egin zituen eta Donostian dantza-taldeak sortu zituen. Euskal dantzen berri emanek "Gipuzcoaco dantza gogoangarriaren berriak edo hitz berriak" (1824) eta "Euskaldun auzi-azoi" (1826) idatzi zituen.

SINOPSIS

"Juan Ignazio Iztueta Zuria" aldaketa garaian bizi izan zen; Ilustrazioa, Frantzesadak eta Lehen Karlismada bertatik bertara ikusi zituen. Bizitza luze bezain bete izan zuen, ez baitzen geldo egoteko horietakoa; dantzari fina, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen, hainbat lan idatzi zuen euskaraz...

1824an egindako dantza bildumarekin gertatutako paradoxa da: eskuliburu zurruntzat erabili da urte luzez, agileak beste ororen gainetik, gauzak bere erara egitea, aske izatea, lotu zuzenean.

Egape dantza-taldeak, Anabasek eta Marizuloko zenbait kidek, Urrietako Udaleran babesarekin, Zuria izatea eta haren garaiko Gipuzkoako ezagut dezan erraztu nahi dugu ikusleari (izan dantza-zale edo ez), zaldibiarrek egingo zuzen bezala, gure erara".



Musikariak: Julian Cobzaru (eskusoinua), Helena Soguska (biolina), Pedro Arletxe (perkusioa), Eneko Salaberria (baxua eta pianoa), Monika Redondo (biolina), Antton Jauregi (tristua, xirula, alboka) eta Xabier Ubillos (gitarra).



Hainbat: Jon Unanue (antzezioa), Enkarni Cuesta (jantziak), Luis Mari Zaldua (ideia nagusia), Jaleon Jauregi (antzezioa eta koordinazioa), Pablo Lusarrola (argi eta soinu teknikaria) eta Mikel Agirregomezkorta (eszena zuzendaritza).

LUIS MARI ZALDUA "MARIZULO" TALDEKO KIDEA

"Sorkuntzak gure erara izan behar duela sinesten dugu eta hau helarazi nahi diogu ikusleari"

Proposamen berri batekin datozkigu Egape dantza taldea, Anabas musika taldea eta Marizuloko zenbait kide. Urrietako udalaren babesarekin, "Zuria, gure erara" izeneko ikuskizuna prestatu dute Juan Ignazio Iztueta "Zuria" idazle eta dantzariaren bizitza oinarri hartuta, haren garaiko Gipuzkoa ikusleari gerturatzeko. Urtarrilaren 17an eta 18an egingo dituzte emanaldiak eta sarrerak Saroben egongo dira salgai. Iztuetak egingo zukeen bezala, euren erara egindako ikuskizuna dela azaldu dio Luis Mari Zalduak Berrituri; hori baita gauzei benetakoa balioa ematen diena: "norberak bere erara egitea".

2008an "Marizulo", 2010ean "Urnieta '59" eta 2013an "1936" izan dira Urnietan aurkeztutako beste lanak. Ba al du loturarik?

Duela zortzi urte inguru jarri genuen mar-txan lan dinamika hau eta hiru emanaldi horiek egin genituen. Emanaldi bakoitzaren bukaeran afaritxo bat egiten genuen eta normalean, hurrengo proiektua buruan genuela ateratzen ginen afaritik. "1936" obraren afarian hasi ginen proiektu honek hitz egiten. Baina lan dinamika hura amaitu zen; oraingo honetaz ez dauka zer ikusirik.

Zertan datza proiektu berria?

Motibazioa neurri handi batean dantzariak izan dira oraingo honetan. Edu Muruamendiarek urteak daramatza maila ezberdineko dantzariekin lanean Urnietan eta hau luxua da. Dantzan helduenak nahiko maila altuan dabilta eta aurrera egiteko erronka berriak behar dituzte. Hauen garapena gelditu ez dadin eta erronka berri bat jartze aldera, emanaldi hau sortu dugu. Funtsean, musika zuzenean duen dantza ikuskizuna da. Baina, aktore bat ere badago (Jon Unanue) eta honek gako batzuk ematen dizkigu dantzatzen eta musikatzen den hori hobeto ulertzeko.

Zergatik hartu duzue oinarri Iztueta?

Edu Muruamendiarek euskal dantzan berritzaile bat izan da. Gaur egun arrunta egiten zaigu musika modernoa euskal dantza tradizionalarekin uztartzea. Baina kontua da bide honi egin egin duela Eduk. Mundu honetan, berritzen saiatzen denak halako urratzak izaten ditu. Hain justu ere, berrikuntzaren oso aldeko ez direnek beti erabili izan dute eredu edo kanon bezala Iztuetaren lana. Iztuetak 1824ean Gipuzkoako dantzen bilduma egin zuen Donostiako Udalebtearen enkarguz. Ordüz gero bilduma hori halako biblia batean bilakatu da eta hori berri-

tzan edo moldatzen saiatu denari, zenbaitek aurre egin diote esanez "Iztuetak hala bildu zuen eta hau ezin da aldatu". Baina Iztueta bera, ez zen batere pertsona zuzuna edo atzerakoa, alderantziz baizik. Bere garairako oso pertsona berritzailea zen, askea eta, batez ere, gauzak bere erara egitea gustatzen zitzaion pertsona.

Paradoxikoa ez?

Bai. Nola liteke, pertsona aske, libertariozale eta gauzak bere erara egitea gustatzen zitzaion pertsona horren lana erabiltzea hain justu ere kontrakorako: inork gauzak berri- tu ez ditzan. Paradoxa horrekin jokutzen dugu. Gauzak egin daitezke, egin ditugu eta egingo ditugu, baina gauzen benetako bal- koa da norberak bere erara egitea.

Dantza berritzaileak jaso dituen kritikei nolabaiteko erantzuna izan daiteke orduan.

Guk gure aldarrikapena egiten dugu eta norberak ulertu dezala nahi duen eran. Nik uste dut edonork daukala eskubidea gauzak nahi dituen bezala egiteko; izan dan- tza munduan, izan musika munduan. Me- zua da, Iztuetak gauzak bere erara egin ba- zituen, bada egin ditzagun guk ere gauzak gure erara. Eta ez dezagun erabili Iztueta inor oztapatzeko.

Beti izan dute sortu dituzuen ikuskizun- nek azpiko mezu bat.

Guretzat garrantzitsuena da obraren atzean dagoen mezua. Publikoarekin me- zu bat partekatu nahi dugu edo, nolabait ere, ikusleengan eztabaida sortu. "Marizulo" ikuskizunean helarazi nahi genuen galdera zen: ezagutzen al duzu Urrietako historia? "1959" obran bi mundu ikuspe- gi landu nahi genituen: euskaldunena eta urte horietan atzeretik Euskal Herrira zeto- zenena. Mezua zen, ez bata eta ez bestea, inor ez da bestea baino hobea, ezberdinak



Lari Taldea. © Xabier

gara eta ezberdintasun horrek bilakatzen gaitu erakargarri. "1936" obran planteatu nahi genuena zen: halako egoera batean zuk zer egingo zenuke? Oso azalpen sin- plista eman izan digute beti 36ko gerraz eta guk azaldu nahi genuena zen hemen ez dagoela ez onik eta ez txarrik. Pertso- nek muturreko egoera batean muturretik jokatzeko dutela. Orain aurkeztuko dugun lanak ere badu mezu bat eta horregatik dauka azpi-izen hori (gure erara). Sorkun- tzak gure erara izan behar duela sinesten dugu eta hau helarazi nahi diogu ikusleari.

Eta horretarako Iztuetaren lanetan oina- rritu zarete.

Aktoreak esaten dituen testu guztiak Iztuetak idatzitako hitzak dira. Guk ez dugu hitzik asmatu. Iztuetak beti esan zuen be- ra eskolatu gabeko pertsona zela, baina hainbat liburu eta poesia lan idatzi zituen euskaraz. XIX. mendean ez ziren asko eus- karaz idazten zutenak. Espetxean egon zen eta bertan maitemindu egin zen. Be- rak asko miresten zuen Zumalakarregi, baina ez zen Karlsten alde lerratu; ideia li- beralak baitzeuzkan. Ez zen izan perso- naia erraza, eklektikoa zen; eta zenbaitek hori zuria izatearekin nahastu zuten, hor- tik zetorkion bere ezizena. Oso pertsona interesgarria iruditzen zaigu Iztueta eta ha- ri omenaldia ere bada obra hau.

Lan-talde handia osatu duzue.

Aurreko emanaldien dinamika horretatik gataz denok. Urteak daramatzagu elka- rrekin lanean. Gure arteko konplizitatea erabatekoa da eta oso ondo konpontzen gara. Lan talde bat gara. Irabazi asmorik gabe ari gara denok eta horrek ematen di- gu askatasuna. Azken finean, diruaren truke egiten duzunean zerbait, mugatuta zaudete. Lanean askotan egin dituzue gauzak zure erara egin; baina hemen gauzak gure erara egiten ari gara.

Asteburuari begira



Dantza ikuskizun berritzailea, Urnietako Saroben

HIRU SAIO ASTEBURUAN. Anabas musika taldeak, Marizulo antzerki taldeko kideek eta Egape dantza taldeak asteburu honetan *Zuria*, gure erara ikuskizuna estreinatuko dute Urnietako Sarobe zentroan. Lan honetan, dantza ardatz hartuta, antzerkia eta musika ere uztartzen dira. Asteburu honetan

hiru saio egingo dira. Gaur parte-hartzaileen familiarrentzat saio berezia egingo da 20.00etan eta bihar eta igandean publiko orokorrari eskainitako emanaldiak programatu dira. Biak 19.00etan hasiko dira. Sarrerak salgai daude lau eurorengatik Lekaion eta Saroben. Irudian, lanaren partaideak. Argazkia: N.G.

URNIETA



**UN GRAN ESPECTÁCULO
PARA RECORDAR A 'ZURIA'**

Sarobe acogió este pasado fin de semana el doble pase del espectáculo 'Zuria, gure erara' en el que tanto Egape Dantza Taldea como Anabas Musika Taldea quisieron llevar al escenario una creación para recordar la persona de Juan Ignacio Iztueta.

JUANF



'ZURIA', LLENO A REBOSAR

URNIETA

El centro de artes escénicas Sarobe acogió ayer por la tarde, al igual que la víspera, la representación de la obra 'Zuria, gure erara', centrado en la figura de Juan Ignacio Iztueta 'Zuria'. Lleno a rebosar.

"ZURIA, GURE ERARA" IKUSKIZUNA SAROBEN

Txalo zaparrada ondo egindako lanari

Urnietan azken urteetan Egape dantza taldearen inguruan maila handiko ikuskizunak sortzea lortu dute. Eta horren inguruan edota horrekin batera antzerkigintza modu bikainean garatzen ari dira.

Bi arte jarduera horien eta musikaren uztarketarekin, Urnietan bertan egindako ikuskizunak kalitatearekin parekatu dituzte. Saio bakoitzeko jaso zuten txalo zaparrada ondo merezia dute.

S arrerak azkar batean agertu zituztelarik, luxua izan zen ikuskerako aukera izan zutenentzat. Dozenaka batzuk izango dira "Zuria, gure erara" ikusi gabe geratu diren urnietarrak. Ez dadila luzeako izan, ikuskizunaren arduradunek Urnietan egun hauean eskainitakoa inguruko herrietan berriro taularatzeko borondatea agertu baitute.

Antzezlana Zaldibiako Juan Inazio Iztueta XIX. mendeko idazle eta dantza ikertlariaren bizitza du ardatz. Haren bizitzaren paradoxa agertu nahi izan zuten. Batetik, Gipuzkoako dantzeekin idatzitako liburua dogmatizat hartu izan da. Eta, bestetik, bere bizitza arakatzeko gero, oso pertsona askea izan zen. Paradoxa hori aintzat harturik, Iztuetak dantzak berreskuratzeko ahalegina eskertu nahi izan diote Marizulo taldeko kide batzuk. Iztueta, "Zuria" ezizena zuena, urnietarren erara antzeztu zuten. Horri, ikuskizunari izen hori jarri izanaren arrazoiak.

Iztueta bizi izan zen garaia hura (1767-1845) aldaketa handikoa izan zen, eta antzezlana hori ere islatu nahi izan zuten. Ilustrazioa, Frantsesadak, Lehen karlistada... gertakizun horiek gertu-gertutik bizi izan zituen. Tarte horretan zaldibiarrak gartzela ezagutu zuten, hiru aldiz ezkondu zen... bizipen sakonak inondik inora.

Ikusleen begietara, dantza eta musika izan zen ikusgarriena, baina Jon Unanueren antzezpina bikaina izan zen. Hark ordezkatu zuen, maisuki gainera, Iztuetaren paradoxa.

Ikuskizunaren pasarte batzuetan Muruamendiaraz Iztueta gazte bilakatu zen, dantzari izan zeneko garaia gogoran hartuz. Eduk eta bere dantzariak ez zuten hutsik egin, eta beste behin ere aho bete hortz uzi zuten Sarobera gerturatu zen ikusleago.



Hiru garren antzezpeneren ondoren pozarren agertu ziren taldekide guztiak.

TALDEKIDE GUZTIEN LAN BIKAINA

Lan korala izan zen, taula gainera belaunaldi ezberdinetako herritarrek igo baitziren. Txiki-ekian, lau dantzariak: Aitzol Otegi, Garife Serrano, Arixen Unanue eta Gartzeta Zaldua.

Anabas taldeko musikariek, banan banan maila handikoak izateaz gain, talde modura oso lan ona egin zuten. Bat eginik, kantu guztietan zehar sendo agertu ziren Pedro Artetxe perkusio-jotzailea, Julian Cob-

zaru eskuoinu-jotzailea, Antton Jauregi txistularia, Monika Redondo bibolin-jotzailea, Helena Soguska bibolin-jotzailea, Eneko Salaberria baxujo-jotzailea, Xabier Ubillos gitarjolea eta Aitor Unanue

Dantza eta musika atalak bikainak izan baziren ere, Jon Unanueren antzezpina ere nabarmentzekoa izan zen



Edu Muruamendiaraz eta horarekin batera dantzan aritu zen neska taldea: Intza Cabrera, Irañi Golkoetxea, Janire Juanikorena, Karmelo Lekona, Uxue Mantorola, Elder Mantorola, Irantzu Oiarzabal, Nahikari Sanchez eta Garazi Usabiaga.

kantaria. Ezin ahaztu ikuskizuna sustatzen itzalpean aritu den lantaldea: Luis Mari Zaldua, Mikel Agirregomezkorta, Pablo Lusarreta, Enkami Cuesta, Kali Gomez, Maribel Jardio, Isidro Salinas eta Jaione Jauregi.

Hurrengo hilabeteetan inguruko herrietan ikuskizuna eskaintzeko aukera egon daiteke. Ikusi ez dutenentzat, edota erreplikatu nahi dutenentzat, aukera paregabea izango da.

BIDEOA



Ohiko sareetan ikusgai.



Zuria, gure erara



Urnietako Egape Dantza Taldeak eta bertako Anabas Musika Taldeak Juan Ignazio Iztueta idazle zaldibiarren omenez *Zuria, gure erara* izeneko dantza ikuskizuna sortu dute. Maila handiko ikuskizuna eta bitxia gainera; bitxia, ikuskizuna, oso-osorik, Urnietan sortua, ekoiztua eta elikatua delako, hots, sortzaile eta partaide ia guztiak urnietarrak direlako, dantzarietatik hasita musikarietaraino, antzezleak, ekoizleak, arduradunak... Orain arte Urnietan bertan eta Andoainen taularatu dute, baina nahikoa izan da ikusleek gogoz eskertu duten ikuskizunak bere ahalmena ager dezan.. Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreogra-

foak landutako dantza sorta eskaintzen du ikuskariak, euskal dantza tradizionala garaikidearekin uztartuz osaturiko mosaiko eder batean. Dantza horien bitartez, Juan Ignazio Iztuetaren bizitzaren eta obraren hainbat pasarte islatu dute, Anabas Musika Taldeak eskaintako musika bikainaren laguntzaz. Antton Jauregik zuzentzen duen taldeak ere musika herrikoia eta tradizionala, lan klasiko eta garaikideren batekin uztartu du; badira Iztuetak berak bildutako doinuak, badira Antton Jauregi eta Xabier Ubillosek sortuak, bada *My way* aski ezaguna edo Häendel-en *Lasccia*. Luis Mari Zalduak eta Mikel Agirregomezkortak idatzirik gidoia du ikuskizunak.

Juan Ignazio Iztueta batez ere ezaguna da gure gizartean Gipuzkoako dantzak berreskuratu, finkatu eta zabaltzeagatik egindako lana eta sortutako eskolagatik. *Zuria, gure erara* obran, ordea, Iztuetaren beste alderdi batzuk azaltzen dituzte, dela bere biografia gorabeheratsua dela bere *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* lanean azaldutiko kezka eta gertaerak. Aitzakia bikaina, XIX. mendeko idazle gipuzkoar berezi hau ezagutzera hurbiltzeko. 111-k ikuskizunaren ideia landu duen Luis Mari Zalduarekin, Edu Muruamendiarazekin eta Antton Jauregirekin hitz egin du haren gaineko hainbat alderdi argitzeko.

Luis Mari Zaldua Zabala izan da (Urnietan, 1965), *Zuria, gure erara* ikuskizunaren gidoia egiteko ekarpen nagusia egin duena, berak landu eta osatu zuen lehen ideia, nolabait esateko. Filologo eta etnografo aski ezaguna, berarengana jo dugu jakiteko zein den ahanzturatik Juan Ignazio Iztueta argitarara aterata eta hari buruzko dantza ikuskizuna osatu izanaren arrazoiak.


Juan Ignazio Iztuetari eta bere obrari buruz *Zuria, gure erara* ikuskizuna aurkeztu duzue. Zergatik orain Iztueta? Zer izan dezake erakargarri egungo euskaldunentzat? Galderak balizko bi erantzun ditu: bata dantzaren arlokoa, orokorragoa bestea. Dantzaren arloari doakionean, paradoxa edo kontraesan batekin jolasean ibili gara, alegia, Iztueta bera eta, noski, haren lanen izpiritua, zurrunak izan ez arren, zenbaitzuk 1824ko bilduma "biblia" ukiezintzat erabili dute, zintzoak (bildumaren testuak diotenari dagoen dagoenean eutsi diotenak) eta maltzurak (hura abiapuntutzat hartuta, euskal dantzak berritu dituztenak) alde bitara banatuz. Jakina, ez gara gu izan euskal dantzak berritu dituztenak, bide horretan ibiliak baitira beste batzuk aspalditxotik, Edu Muruamendiaraz kasurako. Berrikuntza horren gorazarrea egin nahi izan dugu Iztuetaren eskutik, zaldibiarrek begi onez ikusiko zukeelakoan baikaude. Dabilen harriari ez omen zaio gorol-

diorik ateratzen, eta euskal dantzak ez dira salbuespena. Bizirik iraun behar badute, erabili egin behar dira, sorkuntzan..., ez erromeria giroan bakarrik. Gazteei begia euskal dantzez hautatzea nahi badugu, gaurkotu egin beharko ditugu. Hëlburu horretan, euskal dantzen "biblia" idatzi zuena nor zen aurkezten saiatu gara, haren lana galga moduan erabiliagatik, gaurko gazteek (dantzari ala ez) Iztueta gizaseme modernoa izan zela jakin dezaten, modernoa ez ezik, bihurri samarra ere esango genuke.

"Duen tokia baino hobea dagokio Iztuetari euskal kulturaren historian, baina, dena delakoagatik, oraindik ez zaio aitortu, eta horretan gure aletxoak jarri nahi genuke"

Baina dantza kontuez gain izan zuen beste-lako kezkarik... Bai, bai; besterik da, dantzak alde batera utziz gero, Iztuetaren ekarpena euskal kulturara. Askok, esan moduan, dantzen bildumengatik ezagutzen dute eta beste batzuek, 1847an (hil zenetik bi urtera) argitaratu zen *Gipuzkoako Probintziaren Kondairaren* argitaratutako datuengatik (geografia, folklorea, hiztegia...). Alabaina, 1847ko *Kondairan*, oraingoz, behar moduan nabarmendu ez diren hainbat ekarpen daude, dantza bertsolaritzarekin edota eskubide historiak euskararekin lortzen dituztenak, adibidez. Bestalde, ez bedi ahantz liburu euskaraz dagoela idatzia, batasun asmoa duen hizkuntza batean gainera... Elizgizona ez den idazle euskaldun bakarretakoa dugu zaldibiarra. Azkenik, bizitza oparo bezain erakargarria izan zuen, ezzen, haren garairako bederik, kristau "eredugarria" izan. Horrek halako erakargarritasun berezi batekin jantzen





du Iztueta. Norbaitek pentsa badeza behinola euskaldun guztiak elizkoiak, zintzo-zintzoak eta atzerakoiak zirela, oker dabil; begiratzea asko dio Iztuetaren bizitzari. Azkenik, azpimarra dezagun pedagogia eta onomastika sailko lanak ere idatzi zituela, besteak beste,... Askok al dira, bada, hainbeste erpin edo aurpegi dituzten idazleak Euskal Herrian?

Badu, beraz, gaurkotasunik Juan Ignazio Iztuetak?

Duen tokia baino hobea dagokio Iztuetari euskal kulturaren historian, baina, dena delakoagatik, oraindik ez zaio aitortu, eta horretan gure aletxo jarri nahi genuke. "Dena delakoa" diogunean dantzen bildumaren itzalaz eta biografia gorabeheratsuz ari gara. Berebat, politikan-eta nahiko eklektikoa zenez, ez da erraz sailkatzen den pertsona horietakoa eta, hemen, Euskal Herrian, politika arloan, alde batean edo bestean sailka ezin daitekeena, behin baino gehiagotan, baztertu eta ezkatutu ere egiten da.

Iztuetak bere Gipuzkoako Probintziaren Kondairan azaldutako bi lotura aipatu dituzu: batetik, dantza eta bertsolaritzarena eta, bestetik, eskubide historiak eta euskararena. Zertan dautza lotura horiek? Zer harreman dute bikote horiek elkarrekiko? Iztueta, sasoi hartako (eta gaurko) asko bezala, *cbauvinista* samarra zen, nolabait esateko; euskaldunen ondarea gorapatzeko beste toki batzuetakoarekin alderatzen zuen hura, eta, espero izatekoa zenez, bertakotzat zeukana gailentzen zen arrunki. Horrelako alderaketak egiten zituenean, sinesgarriak gerta zitezten, hemengoaren nagusitasunaren arrazoiak aurkitzen saiatzen zen. Ingurumari horretan, hemengo eta kanpoko dantzarien gaitasuna zein dantzen zailtasuna erkatzen ari delarik, ahozko literaturan baliaturiko doinuen oinarri den metrika ezagutu gabe euskal dantzak ikastea zaila iruditzen zaiola idazten du, baina ez alderantziz; horretan ere euskaldun izateak abantailak lituzke, beraz, Zaldibiakoaren irudiko. Dantzen oinarri diren doinuek letra dutela azpimarratzen du eta hor legoke, zehazki, bi arloan bateragunea, hortik letorkie abantaila euskal dantzari: ahozko literaturan erabilitako metrika eta dantzuriko doinuen metrika bat etortzetik, ahozko literaturan erabilitako oinarri metrikoa barneratuta

izatek, horrek dantza ezberdinen pausoak ikastea erraztuko bailuke.

Bestalde, ahozko literaturaz, eta bereziki bertsolaritzaz, ari garelarik, behar bezain ezagunak ez diren berriak irakur daitezke 1847ko *Kondairan*; niri, apustuei buruzkoek eman didate atenzioa gehien.

Eta foruen eta euskararen arteko lotura sutsu hori?

Eskubide historikoak, foruak hitz batean, orduko eztabaida politikoren erdi-erdian zeuden. Oroit bedi Iztuetak *Kondaira* idatzi zuenean lehen gudu karlistako su-garrek euskal gizartea berotzen jarraitzen zutela artean. Bergarako besarkada gertatu zenetik urte gutxi igaro ziren oso... Inor gutxi jartzen zuen zalantzan foruen garrantzia, onerako edo txarrerako, hala karlisten nola liberalen artean. Eta hemen dator gure Iztueta hausnarketa "berezi" batekin: foruen iraupenaren gakoa ez dago Jaungoikoarengan (fedean) ezta erregerengan (legitimismoan), euskararen iraupenean, erabilpenean eta indartzean baizik. Labur esanda, eskubide historikoak euskaratik darrite. Euskara da, horrenbestez, euskal subjektu politikoren heldulekua eta oinarria, eta ez besterik. Baina zaldibiarra ez da horgeratzen; euskararen garapena eta eskubide historikoen aldarrikapena uztartu egiten ditu; zenbat eta euskaldunago orduan eta foruen zaleago, hori da mahai gainean jartzen duen ekuazioa. Gure iritzirako, ikuspegi horrek badu gaurkotasunik, esan nahi baita politika arloko egungo zenbait gertakari aztertzerakoan erabilgarria

izan daitekeela ikuspegi hori. Azkenik, euskara ez du nekazal gizartearekin hertsiki lortzen, hobe esan, hizkuntzaren erabilpena ez du landa eremura edota, adibidea jartzearren, familiara edo etxera mugatzen. Euskaldunek, gauza guzti-guztiak, eremu eta sail guztietakoak, gainerako euskaldunei euskaraz adierazi behar dizkietela azpimarratzen du. Soziolinguistikaren esparruko egungo adituei inoiz entzundiegun zenbait, ezta?



Antton Jauregi Aranburu izan da (Urnieta, 1963), *Zuria, gure erara* ikuskizuna musikaz janzteko ardurua nagusia izan duena. Musika irakasle eta sortzaile honek zuzentzen ditu Anabas Musika Taldea eta Txanbolin Txistulari Taldea Urnietan, eta azken urteetan *Marizulo, Urnieta 1959* eta *1936* ikuskizunen eragile eta sortzaileetakoa izan da. Berarengana jo dugu azal diezagun, labur bada ere, *Zuria, gure erara* ikuskizunak duen musika ukitua.

***Zuria, gure erara* dantza ikuskizun bikaina baldin bada, osatu duzue lan musikalariz zorio hori neurri handi batean. Zer abiapuntu eta irizpide izan dituzu hori osatzeko, nahikoa eklektikoa delako, ala?**

Ikuskizun honek hiru osagai ditu: antzerkia, dantza eta musika. Berez ikuskizun musikala ez bada ere, Iztuetaren bizitza ulertzen laguntzen digu musikak eta, nola ez, pisu nagusia daraman dantzaren ezinbesteko euskarria dugu, nire uestez. Hiru hanka horien arteko oreka bilatzen ahalegindu gara.

Abiapuntua Iztuetak berak argitaratutako *Gipuzkoako dantzak* liburua izan da. Lan hori aitzindaria izan zen folkloreaken ikuspuntutik begiratuta eta garaiko 52 gipuzkoar doinu aurkezten dizkigu. Hori izan da gure iturri nagusia eta lehen pieza, umek dantzatzen dutena hain zuzen, *Punta motz* dugu. Pieza hau txistu soilez entzungo da, besteekin moldaketak egin ditugu, erritmo aldatetako... beste aire bat ematen saiatu gara, dantzaren eskakizunei egokitzen saiatu gara. Halere, *Zuria* gure erara egiteak askatasuna eman digu eta Haendel, Sinatra eta gure sorkuntzak uztartzeko aukera eman digu.

Anabas Musika Taldekoek folklorea eta historia uztartzen duten ikuskizun hauetan baduzue eskarmenturik...

Anabas taldea Txanbolin txistulari taldearen egitasmo baten ondorio da. Euskal Probintzien inguruko kontzertu herrikoiak burutu ondoren, gure herriaren, Urnietaren historia azaltzea bururatu zitzaigun. Horrela gauzatu genituen *Zuria gure erararen* antzeko hiru ikuskizun (haietan 40 aktorek parte hartu zuten): *Marizulo, Urnieta 59* eta *1936*. Aurrekari horien ondoren, Anabas taldeak eskarmentua hartu du.

Iztuetak jasotako doinu eta ereserkietatik Fran Sinatrak betikotu zuen *My way* kanten bertzio euskaldunera... Apustua ez zen erraza...

Obra honek Iztuetaren euskalduntasuna, umorea, erromantizismoa... gauzak bere erara egin zituen gizon bat aurkezten digu. Hori dela eta Frank Sinatraren *My way* kanta erabili dugu leit motiv moduan. *Zuriak*, eskolatu gabeko gizon hark, gauzak bere erara egin zituen, guk ere halaxe egin ditugu.



Fitxa artistikoa eta teknikoa

Gidoia: Mikel Agirregomezkorta,
Luis Mari Zaldua

Eszena zuzendaritza:
Mikel Agirregomezkorta

Koreografia eta dantzen
zuzendaritza: Edu Muruamendaraz

Musika Zuzendaritza:
Antton Jauregi

Argi diseinua eta soinua:
Pablo Luserreta

Jantziak: Enkarni Cuesta

Koordinazioa: Jaione Jauregi

Perkusioa: Pedro Artetxe

Eskusoinua: Julian Cobzaru

Txistua, xirula: Antton Jauregi

Bibolina: Monika Redondo,
Helena Roguska

Baxua eta pianoa: Eneko Salaberria

Gitarra: Xabier Ubillos

Abeslaria: Aitor Unanue



Karmele Agirre, Arantza Cuesta, Iñigo Urdaneta, Garazi Urdaneta, Edu Muruamendaraz, Olatz Sola, Aitor Unanue, Mikel Agirre, Maitena Mantecón, Anire Juan, Helena eta Nahikari Sanchez

Iztuetaren mendea



Juan Ignazio Iztueta Etxeberria (Zuria) Zaldibian jaio zen 1767ko azaroaren 27an. Hamabi anai-arrebetatik bosgarrena, abeltzain eta nekazari herri batean jaioa-gatik, familia onekoa zen; aita udaleko diruzaina eta herri-diputatu izan zen. Goi-mailako ikasketarik ez zuen burutu, berak aitortzen duen moduan.

Hogeita hiru urte zituela (1790ean) ezkondu zen lehen aldiz *Zuria*, hemeretzi urte zeuzkan Joakina Linzoain urnietarrarekin. Lehen ezkontza hartatik bost seme-alaba izan zituen; hain zuzen, semeotariko bat (Jose Ignazio) dantzaria izan zen eta aurrerago aitarekin bizi izan zen Donostian. 1801 arte jaioterrian jarraitu zuen Juan Ignaziok eta, irakaskuntzan ez ezik, hornitzaile edo saltzaile lanetan aritu zen. Errotaria ere izan zen eta artaldea eduki zuen. Gaztetatik dantzarekiko grina eta jokoarekiko nahiz bertsoaritzarekiko zaletasuna erakutsi zuen (bertsotan ere, sarritan, apustuan ibiltzen ziren garai hartan). Salaketa bat baino gehiago izan zituen, orduko erlijioari eta moralari men ez egiteagatik.

1801-1807 bitartean arazo larriak izan zituen Justiziarekin. Aurrena giltzapean eta ondoren espetxean egon behar izan zuen (Ordizian, Tolosan, Azpeitian eta Logroñon). Halere, inork ez du argitu erabat oraindik zergatik atxilotu zuten. Juan Ignaziok beti ukatu zuen lapurretarekiko izan zela (anaia gazteak, Frantzisko Ignaziok, fama hori zuen...). Garbi dagoena da Zaldibiako erretoreak salatu eta Inksizioak epaitu zuela (sexu eta pentsaera kontuetan askea izateagatik, arrastotik ateratzeagatik alegia). Espetxean zegoela (1802an) emaztea hil zitzaion (hogeita hamaika urterekin). Umeak amonak (Maria Ignaziak) zaindu behar izan zizkion.

Logroñoeko espetxean zegoenean entzute handia lortu duten *Kontxesiri*

bertso sorta idatzi zuen. Azpeitian zigorraldia betetzen ari zenean ezagutu zuen Juan Ignaziok Kontxesi Bengoetxea (agidanean, haur hilketa batengatik kondenatuta zegoena). 1808an ezkondu ziren eta hiru seme-alabaren guraso izan ziren. Azpeitian bizi ziren.

Urte hartan, Napoleonen gudarosteak Bidasoa ibaia gurutzatzen duenean, Iztuetak frantsesen alde egiten du (*frantsesetzat* agertzen da). 1810ean Donostiara doa bizitzera familiarekin, baina 1813an, Ingelesek eta Portugaldek Napoleonen armada Donostian inguratuta duten unean, Iztueta Iparraldean zebilen. Guztiarekin, gudaroste frantziarrari zenbait hornidura saldu zizkion eta, gerra amaitzean, sumarioa ireki zioten horregatik; espetxean sartu zuten berriz ere.

1814ean denda baten jabe zen hiriburuan eta, urte bete beranduago, 1815ean, Kontxesi Bengoetxea, bigarren emaztea, hil zitzaion (hogeita bederati urterekin). Donostian biziagatik, gauza jakina da Zaldibiara ere joaten zela.

1824ean (Fernando VII.a errege absolutistak agintea berreskuratu eta gutxira) *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar, eta itz neurtu edo versoquin* liburuak plazaratu zuen. Donostiako udaletxeak ahal zituen dantza eta dantzarako musika gehienak bil zitzala agindu baitzion. artxi-boetan gordetzeko eta gazteei erakusteko. Lehen liburu

hori argitaratzean sekulako laudorioak jasotzen ditu Iztuetak eta politika nahiz kultura arloko zenbait handikirekin hartu-emanak ditu.

1828an, hirurogei urte zituelarik, hirugarrenez ezkondu zen, berrogei urte gutxiago zeuzkan Asunción Urruzola zizurkildarrarekin. Bi seme-alaba izan zituzten elkarrekin. Lanbidez, Donostiako lur-ateko (*Puerta de Tierra*) zaindaria izan zen aurrena garai hartan eta ondoren, polizia sailean hamar urte eman ostean, kartzelako alkaide (*Alcaide del Tribunal de Corregimiento de Guipúzcoa*) izendatu zuten 1834ean. Zuria idazle lanetan buru-belarri zebilen; dantzen aurka zeuden apaizekin ika-mikan sartuta, idatzitako lanetan euskara eta dantzak sutsuki defendatu zituen.

1837an Zaldibiako bizilagun bezala agertzen da. Gazteei dantzak irakasten eta plazaratutako lanik garrantzitsuenetarikoa izan zen *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* (hil ondoren, 1847an, argitaratua) idazten eman zituen bizitzako azken urteak. 1845eko urriaren 18an hil zen jaioterrian, hirurogeita hamazazpi urterekin.

Lau gerrate

Juan Ignazio jaio zenean Carlos III.a Borboikoak agintzen zuen Espainian, Frantziatik zetozen ideia ilustratuak gogoko zituen errege despotak, eta hil zenean, berriz, Isabel II.ak, hamabost urte zituen Fernando VII.aren alaba "liberalak".

Lau gerrate ezagutu izan zituen *Zuriak*: Konbentzioko frantsesestearna (1794-1796). Napoleonen (1808-1813), Errealisten gerra zibila (1820-1822) eta lehen Karlistada (1833-1839).

Hitz bitan esanda, "ardi beltza" izan zen Iztueta bere garaian: frantsesen ideia berritzaileen aldekoa. Zumalakarregiren mireslea baina liberala, apaiza ez zen idazle euskalduna...

"HITZ BITAN ESANDA, 'ARDI BELTZA' IZAN ZEN IZTUETA BERE GARAIAN: FRANTSSEN IDEIA BERRITZAIILEEN ALDEKOA, ZUMALAKARREGIREN MIRESLEA BAINA LIBERALA, APAIZA EZ ZEN IDAZLE EUSKALDUNA...

